

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Santurtziko Udala**

Santurtzin, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eragiten duten sustapen, aholkularitza eta informazio jarduerak antolatzea. Diru-laguntzak emateko deialdia, 2018. urterako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 4an egindako 26/2018 ohiko bileran, onetsi egin zuen Santurtzin, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eragiten duten sustapen-, aholkularitza- eta informazio-jarduerak antolatzea. diru-laguntzak emateko deialdia, 2018. urterako. Horrela, bada, Santurtziko Udalaren iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki zuen.

2018. urterako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaerak Udaltxeko Erregistroaren bidez aurkeztu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legean aurreikusitakoa betez.

Diru-laguntzak eskatzeko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua Santurtzi udalerriko pertsona fisiko, erakunde, elkarte edota emakumeen taldeei prestakuntza, sustapen, aholkularitza eta informazioko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea arautu duen araudian ezarri dira (2008ko abuztuaren 13ko 154. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Santurtzin, 2018ko irailaren 12an. —Alkatea, Aintzane Urkijo Sagredo